

Bezeroekin erlazioa

Usagar S.Koop-en bezeroekin tratu gertukoa eta estua eduki nahi dugu. Horregatik, hauek izango dira gure lanaren ardatz eta momentu oro hauengan pentsatuta egingo dugu lan.

Gure bezeroekin komunikatzeko lau kanal izango ditugu:



- **Web orrialdea:** Nagusiki gure produktua erakusteko eta erakuslehio modura erabiliko dugun arren, kontaktu lekua ere izango da.



- **Sare sozialak:** Sare sozialen bitartez, bezeroak dituen produktuaren inguruko galderak eta dudak erantzungo ditugu. Erakuslehio zein arreta zerbitzu bezela funtzionatuko dugu sare sozialetan.



- **Aurrez aurrekoa:** Bezeroen erlazioen ehuneko haundi bat aurrez aurre egingo dugu. Produktuak jasoko duen bezero mota aurreikusita, hau izango da kanal garrantzitsuena. Produktua erakustez gain, diseinu pertsonalizatu guztiak aurrez aurrekoan oinarrituko dira. Aurrez aurrekoa enpresan bertan edo bezeroaren enpresan eramango da aurrera, bezeroaren beharrak identifikatzeko aproposagoa izanik.



- **Azoka:** Azoka bezero berriak lortzeko erabiliko dugu eta ahoz-ahoz gure produktua azaltzeko.